

IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

DOLORES IBARRURI BHI

014010

ABANTO-ZIERBENA



HISTORIKOA:

Proposamenaren aurkezpena klaustroari	2013-01-18
Behin-behineko proposameneko klaustroaren onarpena	2013-02-27
Proposamenaren aurkezpena OOGri.....	2013-02-27
Klaustroaren onarpena	2013-06-05
OOGren onarpena (partziala)	2013-06-05
OOGren onarpena	2013-10-30
01. berrikuspena	
Klaustroaren onarpena	XXXX-XX-XX
OOGren onarpena	XXXX-XX-XX

AURKIBIDEA

Orrialdea

ATARIKO KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	1
I. KAPITULUA. DOLORES IBARRURI BHI ^{ko} EGINKIZUNA, IKUSKERA ETA BALOREAK	1
II. KAPITULUA. ORGANIZAZIOA ETA FUNTZIONAMENDUA	4
III. KAPITULUA. HEZKUNTZA EGITEA	5

ATARIKO KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP)

1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) DOLORES IBARRURI BHIk duen jarduera akademikoaren antolaketa eta koordinaziorako baliabiderik garrantzitsuen da.
2. IHP DOLORES IBARRURI BHIko identitatea eta filosofia biltzen duen dokumentua da. Ikastetxerako eta hezkuntza-etapa guztietarako bakarra da.
3. IHP ikastetxeak duen autonomia pedagogikoaren adierazpena da eta honek hezkuntza aukera batzen du, hezkuntza komunitateko sektore guztiek onartua; euren helburuak, berez, definitzen ditu, heztea nahi dugun pertsonako tipoiari dagokionez.

I. KAPITULUA. DOLORES IBARRURI BHIko EGINKIZUNA, IKUSKERA ETA BALOREAK

2. artikulua. Eginkizuna

1. DOLORES IBARRURI BHI Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dagoen ikastetxe publiko eta laikoa da. Ikastetxe horrek, hartara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritako planeamenduari jarraiki ematen ditu, ikasturtez ikasturte, bere ikasketak.
2. Meatzaldean, eta Abanto-Zierbenan bereziki, sustraitutako ikastetxe honen eginkizuna bere ikasleei kalitatezko, zuzen eta bidezko hezkuntza publikoa eskaintzea da.
3. Institutu honen helburu nagusia ikasleen formazio osoa garatzea da. Horretarako, arlo akademikoaz gain, balioetan oinarritutako prestakuntza inklusiboa eta berdintzailea bultzatuko du, ikasle autonomo, arduratsu, kritiko eta solidarioak sustatuz.
4. Institutuak ahal izango duen prestakuntza akademiko eta tekniko hobereana eskaintzen die ikasleei, ikaslearen heldutasuna eta lanarekiko ahalmena erdietsiz, etorkizuneko premiei egoki erantzuteko baliabideak eskura jarritz eta bai familiei baita inguru hurbileko gizarteari ere egokitutako hezkuntza zerbitzua eskainiz.
5. Institutu honek ikasleen prestakuntza euren betebeharretan eta eskubideetan oinarritzen du, baita eskubideak eta betebeharrak arduratsuki betetzeko lagungarriak diren baloreetan ere, ikasteko duten motibazioa landuz, bakoitza bere beharrezan arabera arduratuz eta bere maila akademiko onena lor dezatela bere ahalmenak maximoan garatuz.
6. Institutuaren eguneroko jarduera bikaintasunean eta etengabeko hobekuntzan oinarritzen da, talde-lanean, parte-hartzean, errespetuan eta kolaborazioan zentratuta.
7. Hezkuntza komunitateko partaide guztiok, beraz, proiektu hau geurea egiteko lankidetzara bultzatuko dugu.

3. artikulua. Ildo estrategikoak

1. Kalitateko hezkuntza garatzea, eguneroko lanerako metodologia eta bitarteko eraginkorrak erabiliz eta, bereziki, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioan oinarritutako etengabeko hobekuntza prozesuak ezarrit.
2. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan berrikuntza metodologikoan sakontzea, hezkuntza komunitateak hitzartutako printzipio pedagogikoak eta garatu behar diren oinarritzko gaitasun eta gaitasun

orokorrak kontuan izanez, inklusibitate-printzipioa aintzat hartuz eta informazio eta komunikazio teknologien arloko berrikuntzak, bereziki, bultzatuz.

3. Hezkuntza komunitatearen premiei erantzutea, ikasleen behar, interes, ahalmen eta aniztasunari egokitutako eskaintza akademikoa erdietsiz, DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloen hezkuntza- eskaintzari eutsiz.

4. Institutuan erabiltzen diren hezkuntza instrumentalen garapenari dagokionez tratamendu bateratua, errealista, funtzionala eta irekia eskaintzea. Euskararen erabilera institutuko esparru guztietan eta hezkuntza komunitateko kide guztien artean indartzea.

5. Elkarrekiko errespetua, tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna printzipioetan oinarritutako bizikidetzaren kudeaketan hezkuntza komunitateko kide guztiak inplikatzeko, ikasleriaren giza trebetasunak garatzen saiatuz.

6. Hezkidetzeta zentroaren eguneko bizitzaren eremu guztietan integratzea, arreta berezia jarrita emakumei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberako aurreiritzi, estereotipo eta rolak ezabatzeari.

7. Gatazken aurkako prebentziorako heziketa eta euren ezindarkeriazko ebazpena bultzatzea, enpatiarenean, entzute aktiboaren eta lankidetzaren bitartez.

8. Ingurumen natural eta orekatuaren errespetua sustatzea, garapen iraunkorraren oinarrien gainean, institutua eta inguruaren zaintza eta ardura bultzatuz.

9. Institutuaren Hezkuntza Proiektu honen inguruan lan eginez, institutuko langileen arteko elkarlan eraginkorra bultzatzea, bakoitzaren eginkizunak zainduz, harremanak sendotuz, euren eguneko lanari dagozkion konpromisoak eta beharrak era aktiboan onartuz eta zentroan martxan dauden proiektuetan inplikaturik Ikastetxearen Urteko Planean ezarritako helburuak lortzeko asmoz.

10. Irakasleen arteko parte hartze aktiboa eta dinamikoa bultzatzea, euren eguneroko lana koordinatuz, arazoaren konponketarako ezagutza eta ideien ekarpena eginez.

11. Tutorearen figura indartzea ikasturteroko planifikazioan, guraso, ikasle eta irakasleen arteko oinarritzeko lotura izanik, ikasle bakoitzaren norabidetzeko arduraduna.

12. Institutuko irakasleen prestakuntza bultzatzea, euren hazkunde profesionaleko beharrezko lagunduz eta ikastetxeko eskakizunak eta beharrezkoak zeintzuk diren kontutan hartuz hobekuntza eta berrikuntza proiektuei begira.

13. Ikasleen partaidetza institutuan bultzatzea, parte hartzeko bideak ezarriz eta aukerak sortuz.

14. Familiak euren seme-alaben hezkuntzan parte hartzea bultzatzea, elkarren arteko errespetuzko harremanetan oinarrituta, euren eskari eta beharrezkoak erantzunez eta ikasleen etengabeko hazkundera erdietsiz.

15. Herriko edo zonaldeko beste ikastetxeekiko eta Berritzegunearekiko harremanak indartzea, elkarrekiko ezagutza eta talde jarduerak bultzatuz.

16. Udaletxearekiko eta zonaldeko beste erakundeekiko harremanak zaintzea eta herriko ekintzetan parte hartzea.

17. Institutuaren kudeaketa eta antolaketa autonomo, garden, informatutako, koordinatutako eta parte-hartzailea egitea.

18. Institutuko instalazioak, baliabideak eta ekipamendua gaurkotzea, beharrezko azpiegiturak hornituz, pertsonen osasuna eta segurtasuna bermatuz, teknologia berriak sustatuz eta garapen

iraunkorra eta ingurugiroarekiko begirunea kontutan hartuz. Hezkuntza komunitatearen kide guztiak instalazioen zainketan eta haiekiko begirunean inplikatzeari.

4. artikulua. Ikuskera

Ondoko ezaugarriak dituen institutua izan nahi dugu:

- a) Hezkuntza akademiko eta teknikoaz gainera, ikasleen gaitasunak eta ahalmenak indartzen dituen prestakuntza integrala eskaintzen duen institutua. Ikasleen aniztasuna eta desberdintasuna integratzeko gai den institutua, ikasleen partaidetza aktiboa eraginez.
- b) Gizartearen premiak kontuan hartuta, ikasleen beharrezan eta aniztasunari erantzuten dien eskaintza akademiko duen institutua. Eskaintza hori bideratzeko balio demokratikoetan eta baliabide teknologiko aurreratueta oinarrituko da.
- c) Ikasteko nahia eta ezagueraren beharra bultzatzen dituen institutua, bere ikasleek DBHean graduatua lortzea gutxiengo erronka izanez.
- d) Ikasketak adierazgarriak, kooperatiboak, motibagarriak eta parte-hartzaileak sustatzen dituen institutua, ikaslea bere heziketako parte aktiboa izanez.
- e) Ikasle eleanitzak sustatzen duen ikastetxea, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren komunikazio hizkuntza nagusia euskara izanez eta ingelesaren ezagutza bermatzeko lana eginez.
- f) Ikasleen sormenaren garapena eta bere espiritu kritikoa bultzatzen dituen institutua, bere bizitzan diren egoeren kontra proaktiboa izateko moduan.
- g) Orientazio- eta tutoretza-zerbitzu eraginkorra duen institutua.
- h) Langileen profesionaltasuna hobetzeko baldintza eroso eta atseginak eskaintzen dituen institutua.
- i) Institutuko irakasleen, administrazio eta zerbitzuetako langileen eta familien formazio premiei erantzungo dion ikastetxea, dagokien hobekuntza planetan eta berrikuntza proiektuetan zehaztutakoaren arabera.
- j) Familientzat konfiantzazko ikastetxea, bere profesionaltasunagatik, irudi onagatik eta ideologiaz aparte guztiek euren bezala ikusten dutena. Antolakuntza ona, kalitatezko hezkuntza, barruko lan-giro ona eta lana ondo egiteko prestasuna nabarmentzen diren institutua.
- k) Barne komunikazioa indartuko duen institutua, ezarrita dauden komunikazio-bideak ebaluatuz, hobekuntzak ezarriz eta gardentasuna bultzatuz.
- l) Guztiak (pertsonak eta taldeak) zereginen ebaluazio abiapuntuetatik hartuz, helburuak eta hobekuntza-eraketak adostuko dituen eta zereginak birdefinitzen dituen institutua.
- m) Atxikitutako lehen hezkuntzako ikastetxe publikoarekin koordinatzen den institutua.
- n) Funtzionamendu eraginkorra duen institutua, instalazio onez hornituta eta gizartearen aldaketak aurreikusteko eta haiei egokitzeko gai dena.

5. artikulua. Baloreak

1. Euskal Eskola Publikoaren Legeko (EEPLko) 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, DOLORES IBARRURI BHIk ezaugarri hauek ditu: euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru sozial eta kulturean sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu, aniztasuna zaintzen du, hezkidetzaz arduratzen da, plurala da, elebiduna da eta demokratikoa da.

2. Institutuak bere jardueren garapenerako funtsezko balioak hauexek hartzen du kontuan: askatasuna, justizia, pluralismoa, giza duintasunerako estimua eta errespetua, diskriminazioaren absentsia, demokrazia, solidaritatea, euskal gizartean inbrikazioa, tolerantzia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, egiarako atxikimendua, parte-hartzea eta erantzukizuna.

3. Institutuak bere heziketa-praktikaren garapenerako funtsezko balio hauek hartzen ditu: tratu-berdintasuna, desberdintasunen konpentsazioa, pertsonalizatutako arreta, lankidetzua, espirtu kritikoa, ezaguerarako grina, elkarrekiko laguntza eta aniztasunaren balioespen positiboa.

II. KAPITULUA. ORGANIZAZIOA ETA FUNTZIONAMENDUA

6. artikulua. Egitura

1. DOLORES IBARRURI BHIk gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organoak izango ditu goian aipaturiko eginkizuna betetzeko.

2. DOLORES IBARRURI BHIko gobernu-organoak taldeko aginte-organoak nahiz lagun bakarreko aginte-organoak izango dira:

a) Taldekoak: Ordezkaritza Organo Gorena (OOG), irakasleen klaustroa eta zuzendaritza-taldea.

b) Lagun bakarrekoak: zuzendaritza, ikasketaburutza, ikasketaburutza-ondokoa, idazkaritza akademikoa eta idazkaritza-orde akademikoa.

3. DOLORES IBARRURI BHIko partaidetza-organo garrantzitsuena OOGa da baina badira institutuaren jardunean parte hartzeko beste organo espezifiko batzuk, alegia, gurasoen batzarra, guraso-elkarteak eta ikasleen parte hartze-organoak: taldeko ordezkariek, ikastaldearen batzarra, ordezkariek batzordea eta ikasle-elkarteak.

4. DOLORES IBARRURI BHIko koordinazio didaktikorako organoak hauexek izango dira: Koordinazio pedagogikorako batzordea, departamentu didaktikoak eta orientabide departamentua, departamentuko buruen batzordea, tutoreak, taldeko irakasle-taldeak eta etapako koordinatzaileak.

7. artikulua. Jarduera akademikoaren antolaketarako baliabideak

1. DOLORES IBARRURI BHIk jarduera akademikoaren antolaketa eta koordinazio egokirako hurrengo baliabideak izango ditu: Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Ikastetxearen Curriculum Proiektua, Ikastetxearen Hizkuntz Egitasmoa, Ikastetxearen Kudeaketa-Proiektua eta Antolakuntza eta Jarduera Araudia.

2. DOLORES IBARRURI BHIk ikasturte bakoitzeko jarduera akademikoaren plangintza egokia burutzeko hurrengo baliabideak izango ditu: Ikastetxearen Urteko Plana eta Ikastetxearen Urteko Memoria.

8. artikulua. Zerbitzuak

DOLORES IBARRURI BHIk jarduera akademikoaren osagarriak diren hurrengo zerbitzuak izango ditu: Liburutegia, jantokia, eskola garraioa eta Testuliburuaren eta Curriculum-Materialen Kudeaketa Solidarioa Egiteko Programa.

III. KAPITULUA. HEZKUNTZA EGITEA

9. artikulua. Eskaintza akademikoa

DOLORES IBARRURI BHI bigarren hezkuntzako institutu publikoa da eta honako eskaintza akademikoa dauka:

- a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)
- b) Batxilergoa: Zientzien eta Teknogiaren Modalitatea eta Giza eta Gizarte-Zientzien Modalitatea
- c) Lanbide Heziketa (LH): Erdi mailako Heziketa Ziklo bat, Irudi-Laborategia, eta Goi Mailako Heziketa Ziklo bat, Gorputz- eta Kirol-Ekintzen Sustapena.

10. artikulua. Hizkuntza eskaintza

1. DOLORES IBARRURI BHIa ikastetxe elebiduna da eta EHAEan ofizialak diren bi hizkuntzetan egingo du bere hizkuntza eskaintza.
2. Institutuak beste hizkuntzak ikasteko aukerak bermatuko ditu eta bere hizkuntza eskaintzan ingelesa eta frantsesa, gutxienez, presente egoteko ahaleginak egingo ditu araudiak ezarritakoari jarraituz.

11. artikulua. Planak

1. Ikasle guztientzako neurri orokor komunak hartzeaz gain, institutuak ikasle batzuek adierazten dituzten heziketa-behar berezietz arduratzera bideratutako neurri espezifikoak ere garatuko ditu, guztiek bere ahalmenen potentziala maximoan garatu ahal dezatela. Horretarako Aniztasunerako Arreta Plan bat izango du ikasle guztien heziketa-beharretarako heziketa-erantzuna emango duena. Plan honek zentroaren irizpideak ezarriko ditu aukerakotasunari, ikasleen taldekatzei eta heziketa-errefortzuei dagokienez eta hurrengo programez eta proiektuez osatuta egongo da gutxienez baldin eta indarreko araudiak baimentzen badu: Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Proiektua, Curriculum Anitzeko Programa eta Hizkuntza Indartzeko Programa.
2. Lanbide Heziketako ikasleentzako Enplegurako heziketa jardura programa ere edukiko du.
3. Tutoretza irakaskuntzaren funtzioaren eta curriculumaren berezko elementua da eta DOLORES IBARRURI BHIko irakasle guztiak egongo dira tutore-ekintzan nahasita. Gainera, tutoreek egingo dituzte koordinazio lanak, arazo pertsonalen eta taldeen aurrean esku-hartzea eta pertsonalizatutako arreta. DOLORES IBARRURI BHIk Orientazio eta Tutoretza Plana izango du, zentroko orientazioaren koherentzia eta jarraitasuna bermatuko dituena eta ikasle-talde beraren gainean eragiten duten irakasleen artean koordinazioa posible egingo duena.
4. Institutuak hezkuntza komunitateari emango dizkio erlazio pertsonaletako errespetu ingurunea, bizikidetasun positibo eta eraikitzaileko klima bat eta aurrez ikustea eta gatazkak era libre eta arduratsuan ebaztea baimentzen duten portaera egokiko garapenera zuzendutako jokoak. Hartarako, Harrera Plana gutxienez osatuta egongo den Urteko Bizikidetzeta Plana izango du.
5. DOLORES IBARRURI BHIk dituen beste planak hauexek dira: Ekintza Osagarrien eta Eskolaz Kanpoko Ekintzen Programa, Zentroaren Ebaluazio Plana, Irakasleentzako Formazio Plana eta Urteko Kudeaketa Programa.

12. artikulua. Proiektuak

1. DOLORES IBARRURI BHIk emakumeen eta gizonen arteko berdintasunagatik beilatuko du, Berdintasun Proiektu egokiaren bidez, helbide horretako akzioen garatuz.

2. Euskara, bai euskal gizartean bai Abanto-Zierbenan, normalizazio prozesu baten barruan dagoenez, DOLORES IBARRURI BHIko hezkuntza komunitate guztiak bere gain hartuko ditu sustatzeko eta normalizatzeko konpromisoak, ikastetxeko talde eta maila orotan lehenetsuneko hizkuntza eredu izatez, institutuaren komunikazio hizkuntza nagusia euskara izatez eta, berez, erreferentzia gune euskalduna eskainiz. Bide horretan aurrera ibiltzeko, institutuak Normalkuntza Proiektu bat edukiko du.
3. DOLORES IBARRURI BHIk Osasun Proiektua izango du bizitza osasungarriko ohituren garapena zainduko duena, sexualitatearekin eta afektibitatearekin erlazionatutako alderdiak jasoko dituen, berezko gorputzaren funtzionamenduaren ezagueran eta onarpenean oinarrituz eta gorputzaren osasuna- eta ardurak-ohiturak sustatuz.
4. Ingurumen heziketa eta gure planetaren arduraranzko sentsibilizazioko garapena planteatuko da balioetako behar hezigarria bezala eta materia guztietan aurrean egon behar duen eskumen-eduki bezala. Horregatik zentroak Agenda Lokal 21 Proiektuan parte izango du, dagokien erakundeek ezarritako parametroen arabera.
5. Institutuak Informazio eta Komunikazio Teknologietako ezaguera eta erabilera bultzatuko ditu efektuari Hezkuntza Sailak bultzatzen dituen ekimenetan parte hartuz, adibide bezala, IKT Heldutasun Modeloa. Bere erabilera zuzeneko ikasleen heziketa zainduko du, gainera.